

Konpetentzien araberako ebaluaziorako eredua

Jarraian, erakutsiko dizuegu zein den konpetentzien arabera ebaluatzen hasteko prozedura. Aurkezten dizuegun suposizioa «Elikadura eta osasuna» izeneko 3. ardatzean proposatutako jardueren adibide bat da. Lan-ardatz hori gure moduluko unitate didaktikoa edo lan-unitate bat izango balitz bezala hartuko dugu.

Horretarako, konpetentzien arabera ebaluatzen duen programazioa ezartzeko eta diseinatzeko prozedura hiru *tenpo* edo pausotan egituratuko dugu. Lehenik, landuko ditugun titulazioen moduluak kontuan hartu beharko ditugu:

- Haur Hezkuntzako goi-mailako Gradua, «Autonomia pertsonala» modulua.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko erdi-mailako Gradua.

Jarraitu beharreko urratsak...

1

Aldez aurreko urratsak - Konpetentziak eta ikasketaren emaitzak: atal honetan aukeratuko ditugu ikasketaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta konpetentziak, bai moduluaren berezkoak eta bai lanbide heziketaren arauditik datozenak, landu nahi ditugun eduki eta jardueretarako egokitzat hartzen ditugunak.

2

Ebaluazio-irizpideak, ikasketaren emaitzak eta konpetentziak lotzen dituen taula sortzea: taula bat egingo dugu ematen dugun moduluaren berezko konpetentziak lotzeko (kasu honetan, Haur Hezkuntzako Graduon Autonomia Pertsonala moduluaz eta Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko Graduon Etxeko Laguntza moduluaz ari gara). Lanbide Heziketaren araudian bertan agertzen diren beste konpetentzia batzuk ere baditugu, hala nola **Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 3. artikuluan** agertzen diren konpetentziak eta modulu horiek ebaluatzeko erabiliko ditugun ikasketaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

3

Programazioa egitea, konpetentzien arabeko ebaluazioa aplikatuz. Aukeratutako puntuak ordenatuko ditugu eta 3. ardatzeko jardueretako batean aplikatuko ditugu, zehazki, 3. jardueran «*Dietaren autoanalisi*». Jarduera hori konpetentzien arabera ebaluatzeko erabiliko dugun errubrika sortuko dugu. Prozesua jarduera bakoitzean errepikatu behar da.

Beraz, jarraian konpetentzien arabeko ebaluazioa egingo dugu.

Glosarioa

EI: Ebaluazio-irizpideak

Konp: Konpetentziak

IE: Ikasketaren emaitzak

LU: Lan-unitateak

1. ALDEZ AURREKO PAUSOAK

1. LOTURA DUTEN KONPETENTZIAK AUKERATZEA

Egin behar dugun lehenengo gauza da gure jarduera hartzen duen modulua duen titulura eta Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorrera jotzea.

Tituluan moduari dagozkion konpetentziak aurkituko ditugu. Hortik, jarduerarekin bat datozenak aukera ditzakegu.

Gero, LHren Antolamendu Orokorretik, konpetentzia gehiago har ditzakegu (egokitzen hartzen baditugu), 1. eranskinetik edo Printzipio eta Helburu Orokorrek ataletik.

Honako hauek dira erreferentziak:

[Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikariaren titulua 1593/2011 ED](#)

[Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulua 1394/2007 ED](#)

[LHren Antolamendu Orokorra, 1147/2011 ED](#)

2. EMAITZEKIKO LOTURA

Orain, ikusi behar dugu ikasketaren emaitza bakoitza jarduerarekin lotuta dagoen, eta bakoitzetik egokiak diren ebaluazio-irizpideak aukeratuko ditugu.

3. LOTURA DUTEN EDUKIAK

Tituluaren edukien artean eta/edo curriculumean (batzuetan curriculum konpletoagoa da), jardueran landuko ditugun horiek bilatuko ditugu.

[Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikariaren titulua 1593/2011 ED](#)

ETXEKO LAGUNTZA

Moduluaren PPS kompetentziak (profesionalak, pertsonalak eta sozialak), 1593/2011 Errege Dekretuaren arabera.

(Urdinez markatzen ditugu jardueran lantzen direnak. Jardueraren ikuspegiak dieta aztertzea izan behar du, erabiltzaileei aplikatu ahal izateko)

a) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren asistentzia-premiak eta premia psikosozialak zehaztea, arreta indibidualko planaren bitartez pertsona horri buruz lortutako informazioa interpretatuz eta, betiere, horren konfidentzialtasuna zainduz.

b) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko jarduerak antolatzea, haien eta beren familien parte-hartzea sustatuz, eta arreta indibidualizatuko planean ezarritako jarraibideak kontuan hartuz.

d) Elikadurari buruzko esku-hartzea antolatzea, menuak ikuskatuz, elikagaiak prestatuz eta behar denean emanez. (Kompetentzia nagusia)

e) Bizikidetzaren unitatearen oinarriko dokumentazioa eta aurrekontua kudeatzea, baliabideak optimizatuz eta kudeaketa ekonomikoaren bideragarritasuna bermatuz.

f) Etxearen mantentze- eta garbiketa-lanak egitea, bizigarritasun-baldintzak, higiena eta ordena bermatuz, kalitate-, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak erabiliz eta dagokion dokumentazioa tramitatuz.

i) Esku-hartzearen eremu guztietan prebentzio eta segurtasun neurriak aplikatzea, bai mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat, bai profesionalentzat ere,.

n) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, haren senideei eta zaintzaile ez formalei aholku ematea, zaintzarako eta asistentziarako eta arreta psikosozialerako jarraibideak emanez eta komunikazioa eta jarrerak solaskidearen ezaugarrietara egokituz.

ñ) Kontingentziak ekimenez eta autonomiaz konpontzea, jarrera autokritikoz eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ongizatea laguntzeko alternatibak bilatuz.

o) Asistentzia-jardueren, jarduera psikosozialen eta etxearen kudeaketaren kontrola eta segimendua laguntzea, dagokion erregistroak betez, zerbitzuaren aplikazio informatikoak erabiliz eta atzemandako intzidentziak komunikatuz.

r) Arduraz eta autonomiaz jokatzeko, egokitutako lana antolatuz eta garatuz eta laneko beste profesional batzuekin kooperatuz edo taldean lan eginez.

s) Jarduerari dagozkion intzidentziak modu arduratsuan konpontzea, horiek eragin dituzten kausak identifikatuz, norberaren kompetentziaren eta autonomiaren barruan.

t) Modu eraginkorrean komunikatzea, lanean parte hartzen duten pertsonen autonomia eta kompetentzia errespetatuz.

u) Ekoizpen-prozesuan zehar, lan arriskuko eta ingurumen babeseko protokoloak eta prebentzio-neurriak aplikatzea, pertsoneri, lan-inguruneari eta ingurumenari kalte egitea saihesteko.

v) Kalitateko, sarbide unibertsaleko eta "guztientzako diseinu"ko prozedurak aplikatzea ekoizpen eta zerbitzu prozesuen barruan dauden jarduera profesionaletan.

Egokiak izateagatik 1593/2011 Errege Dekretuaren modulari gehitu dakizkiokeen beste kompetentzia batzuk

(Tituluaren kompetentzien artean, gure jarduerarekin bat datozen beste batzuk aukera ditzakegu, modulukoak edo ez, baina egoki iruditzen zaizkigunak)

c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen higie pertsonaleko eta janzteko jarduerak egitea, eguneroko jardueretan behar duten laguntza emanez baina haien autonomia ahalik eta gehien sustatuz, eta haiekin errespetuzko eta profesionaltasunezko jarrera izanez.

g) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen egoera fisikoarekin zerikusia duten esku-hartzeak egitea, ezarritako jarraibideei jarraituz eta une oro haien intimitatea errespetatuz.

h) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen lekualdatzeak eta mobilizazioak egitea eta ibiltzeko laguntza ematea, protokoloak eta beharrezkoak diren laguntza teknikoak erabiliz, Arreta Indibidualeko Planean (AIP) ezarritako jarraibideei jarraituz eta prebentzio eta segurtasun neurriak hartuz.

j) Jarduera profesionalean sortzen diren larrialdiko eta osasunerako arriskuko egoerei erantzutea, lehen sorospeneko teknikak aplikatuz.

k) Laguntza psikosozialeko esku-hartzeak ezarri, laguntza teknikoak, komunikaziokoak eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz, eta arreta indibidualeko planean ematen diren jarraibideei jarraituz.

l) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonal eta sozialeko gaitasunak mantentzeko eta garatzeko teknikak eta estrategiak aplikatzea, laguntza teknikoak eta komunikaziokoak erabiliz arreta indibidualeko planean markatutako jarraibideen arabera.

m) Bide-laguntzako eta laguntza pertsonaleko lanak egitea, bizimodu independenteko plan indibidualaren jarraibideak eta erabiltzailearen erabakiak errespetatuz.

p) Telelaguntza zerbitzura sartzen eta irteten diren deiak kudeatzea, horiek jasoz eta igorritz ezarritako protokoloen arabera eta aplikazio informatikoak eta tresna telematikoak erabiliz.

q) Aldaketa teknologikoek eta antolakuntzakoek ekoizpen prozesuetan eragindako lan egoera berrietara moldatzea, ezagutzak eguneratuz, bizitzan zehar ikasteko dauden baliabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz.

w) Enpresa txiki bat sortzeko eta kudeatzeko oinarrizko gestioa egitea eta bere jarduera profesionalean ekimena izatea.

x) Jarduera profesionalak dakartzan eskubideak erabiltzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dauden legeek ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean gogoz parte hartuz.

1147/2011 Errege Dekretuaren 3. artikuluko LHren Antolamendu Orokorretik hartutakoak

1. eranskina. Lanbide Heziketako maila desberdinen berezko konpetentziak

(Egokitzat hartzen direnak har daitezke hemendik)

Erdi-mailako heziketa-zikloak

1. Lanbide-eremu espezializatu batean ezagutza-eremu desberdinetako teknikak eta ezagutzak aplikatzea.

2. Arazoak eta kontingentziak modu sortzaile eta berritzaile batean konpontzea dagokion eskumen-eremuaren barruan, horiek eragiten dituzten kausak identifikatuz.

3. Beste pertsona batzuen ohiko lana ikuskatzea, lan-prozesu eta -prozedurak ebaluatzeko eta hobetzeko behar den ardura hartuz, produktuaren edo zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

4. Aldaketa teknologikoek eta antolakuntzakoek ekoizpen-prozesuetan eragindako lan egoera berrietara moldatzea, ezagutzak eguneratuz, bizitzan zehar ikasteko dauden baliabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz.

5. Bere eskumen-eremuari egokitutako lana arduraz eta autonomiaz egitea eta antolatzea, laneko beste profesional batzuekin kooperatuz edo taldean lan eginez.

6. Modu eraginkorrean komunikatzea, lanean parte hartzen duten pertsonen autonomia eta konpetentzia errespetatuz, lanaren eta produktu edo zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

7. Ekoizpen-prozesuan zehar, lan arriskuko eta ingurumen babeseko protokoloak eta prebentzio-neurriak aplikatzea, pertsonei, lan-inguruneari eta ingurumenari kalte egitea saihesteko.

8. Enpresa txiki bat sortzeko eta kudeatzeko oinarrizko gestioa egitea eta bere jarduera profesionalean ekimena izatea.

9. Jarduera profesionalak dakartzan eskubideak erabiltzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dauden legeek ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalean gogoz parte hartuz.

Etxeko laguntzako ikasketaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

IE1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxeko lan-plana antolatzen du, emandako jarraibideak interpretatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-planaren ezaugarriak identifikatu dira.

b) Lan-plana mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren egoerara moldatzearen garrantzia deskribatu da.

c) Etxean egin beharreko lanak identifikatu dira.

d) Egunero egin beharreko etxeko lanak sekuentziatu dira, lan-planaren eta egindako moldaketaren arabera, horiek beharrezkoak badira.

e) Etxean bete beharreko premiak eta eskaerak aztertu dira.

f) Bizikidetzaren unitatearen berezko ezaugarri kulturalak errespetatu dira.

g) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari etxean arreta emateko plan mota desberdinak identifikatu dira.

h) Jarduerak gauzatzeko sekuentziaren garrantzia baloratu da, denbora eta ahaleginak errentagarri egiteko.

IE2. Gastuaren kudeaketa planifikatzen du, oinarrizko administrazio-tekniken eta bizikidetzak-unitatearen premien arteko lotura eginez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bizikidetzak-unitatearen gastuei dagokien dokumentazioa aztertu da.
- b) Etxearen kudeaketari dagozkion dokumentuak interpretatzen jakitzearen garrantzia aintzat hartu da.
- c) Hileko gastu orokorraren idazpenen dosierra egin da.
- d) Bizikidetzak-unitatearen ezohiko gastuen dosierra egin da.
- e) Bizikidetzak-unitatearen hileko aurrekontuaren banaketan eragiten duten faktoreak zerrendatu dira.
- f) Bizikidetzak-unitate arrunt baten ohiko gastuak eta izakinak hornitzeko gastuak zerrendatu eta sailkatu dira.
- g) Bizikidetzak-unitate desberdinen hileko gastuak aztertu dira.
- h) Sarreraren eta irteeraren arteko oreka gordetzeko beharra baloratu da.

IE3. Bizikidetzak-unitatearen hornikuntza antolatzen du, produktuaren ezaugarriak deskribatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publizitate dokumentazio mota desberdinak aztertu dira, produktuak aukeratuz.
- b) Teknologia informazio-iturri gisa baloratu dira.
- c) Erosketa-zerrenda zehaztu da.
- d) Kontsumoko hainbat produkturen eta elikagairen etiketak aztertu dira.
- e) Produktuak modu egokian biltegitratzeko leku egokiak identifikatu dira, horien ezaugarriak kontuan hartuta.
- f) Elikadura, garbiketa, higiene eta etxea mantentzeko produktuen salmentara bideratutako denda eta zerbitzu motak zerrendatu dira.
- g) Produktu desberdinak kokatzeko irizpideak ezarri dira, antolakuntza-, segurtasun- eta higiene-irizpideen arabera.

IE4. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxearen mantentzea prestatzen du, teknikak eta produktuak kalitate-, segurtasun- eta higiene-irizpideen arabera aukeratuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etxean sortzen diren hainbat hondakin eta zabor mota aztertu dira.
- b) Etxean erabiltzen diren etxetresna elektriko motak (garbigailua, lehorgailua, plantxa, xurgagailua eta beste batzuk) eta horien maneiua, arriskuak eta mantentzea identifikatu dira.
- c) Zoruak, tresnak, altzariak, leihoak eta komunak garbitzeko teknikak dossier batean bildu dira.
- d) Erabili beharreko garbiketa- eta desinfekzio-produktuak identifikatu dira, horien erabilerak, arriskuak eta etxean duten kokapena deskribatuz.
- e) Etxeko instalazio elektrikoen maneiua eta erabilerak dakartzan arriskuak deskribatu dira.
- f) Arropa makinaz eta eskuz garbitzeko teknikak deskribatu dira, arroparen, orban-motaren eta zikinkeria-mailaren arabera.
- g) Etxearen mantentze-lanei dagozkien segurtasuneko, higieneko, prebentzioko eta produktuak eliminatzeko arauak betetzea baloratu da.
- h) Arroparen etiketa interpretatzeko jarraibideak deskribatu dira, arropa dagokion garbiketa-prozesuaren arabera sailkatuz.

IE5. Menuko elikagaiak aukeratzeko dituzten, horien ezaugarriak eta kantitateak emandako preskripzioekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikadurari eta nutrizioari dagozkion oinarritzko kontzeptuak aztertu dira.
- b) Elikagaiak beren ezaugarrien arabera sailkatu dira.
- c) Dieta osasungarri baten ezaugarriak identifikatu dira, baita horrek izan behar dituen elikagai-motak.
- d) Etxeko kantitate eta neurriak identifikatu dira.
- e) Ontziratutako elikagaien nutrizio-etiketak aztertu dira.

f) Eguneroko ahorakinean egon behar duten elikagaiak identifikatu dira, emandako preskripzioak kontuan hartuta.

g) Dieta osasungarriak duen garrantzia baloratu da.

IE6. Prestakuntza-prozesuan sukaldaritzako oinarritzko teknikak erabiltzen ditu, erabiltzailearen premiekin eta ezarritako protokoloekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Elikagaien prestaketan higieneko, arrisku-prebentzioko eta produktuak eliminatzeko neurriak aplikatzeko beharra aintzat hartu da.

b) Sukaldaritza familiarrean aplikatzeko oinarritzko sukaldaritza teknikak identifikatu dira, kasu bakoitzean aplikazio-faseak, -prozedurak, -denborak eta erabili beharreko tresnak aipatuz.

c) Sukaldaritza-errezetak bildu dira, kantitateak eta denborak mahaikideen eta horien behar espezifikoaren arabera doituz.

d) Kozinatze aurreko prozedurak identifikatu dira: produktuak desizoztea, ebakitzea, zuritzea, zatitzea eta garbitzea.

e) Elikagaien aurreprestaketa (desizoztea, ebakitzea, zuritzea eta garbitzea) egiteko behar diren materialak, lanabesak, tresna elektrikoak sailkatu dira.

f) Bizikidetzaren unitateko kideen dietarako egokiak diren lehen platerak, bigarren platerak eta postreak prestatzeko oinarritzko teknikak aplikatu dira.

g) Elikagaiak manipulatzeko eta prozesatzeko segurtasun eta higie arauak betetzearen garrantzia aintzat hartu da.

h) Elikagaien aurkezpenaren garrantzia baloratu da.

IE7. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxeko lan-planaren jarraipena egiten du, ezarritako protokoloa deskribatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arrisku egoerak identifikatzeko eta horien jarraipena egiteko buruzko informazio-iturriak eta teknikak identifikatu dira.

- b) Baliabide desberdinak aztertu dira, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen premiak aukeratuz.
- c) Emandako laguntzan datuak erregistratu dira.
- d) Bildutako informazioa zuzen interpretatu da.
- e) Beste profesional batzuen laguntza eskatzen duten egoerak identifikatu dira.
- f) Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ebaluazioak duen garrantzia baloratu da.

Moduluaren edukiak

Bizikidetzaren unitatearen lan-plana antolatzea:

- Lan-planaren elementuak.
- Etxean bete beharreko beharrak eta eskakizunak erabakitzen dituzten faktoreak.
- Etxeko lanaren antolakuntza baloratzea.

Bizikidetzaren unitatearen aurrekontua kudeatzeko plangintza:

- Bizikidetzaren unitatearen gastu orokorrak aurreikustea.
- Etxearen kudeaketaren dokumentazioa interpretatzea eta maneiatzea.
- Sarreraren eta gastuen arteko oreka gorde behararen justifikazioa.

Bizikidetzaren unitatearen hornikuntza antolatzea:

- Erosketa-motak: zuzena, birtuala eta telefono bidezkoa.
- Erosketa-zerrenda osatzea.
- Banaketa eta etxean biltegitzea.
- Kontsumo arduratsua baloratzea.

Etxearen mantentzea eta garbiketa prestatzea:

- Garbiketa-lanak.
- Garbitzeko materialak, produktuak eta tresnak aukeratzea.
- Tresna elektrikoak maneiatzeko segurtasun-neurriak.
- Hondakinak eta zaborra elimintzeko eta birziklatzeko ingurumen-irizpideen justifikazioa.

Menuko elikagaiak aukeratzea:

- Elikagai-mota desberdinen nutrizio-ezaugarriak.
- Menuak behar pertsonalen arabera identifikatzea.
- Dieta osasungarria baloratzea.

Sukaldaritzako oinarrizko teknikak aplikatzea:

- Sukaldaritzako hatuen eta tresna elektrikoen erabilera eta mantentze-lana.
- Elikagaien manipulazioaren oinarrizko printzipioak.
- Sukaldaritzako oinarrizko prestakinak.
- Elikagaiak manipulatzeko prebentzioaren eta segurtasunaren justifikazioa.

Lan-planaren segimendua:

- Segimendu-orriak betetzea.
- Informazioa erregistratzeko eta komunikatzeko teknologiak erabiltzea.

HAURRAREN AUTONOMIA PERTSONALA ETA OSASUNA

Moduluaren berezko PPS kompetentziak (profesionalak, pertsonalak eta sozialak) 1394/2007 Errege Dekretuaren arabera

(Jardueran lantzen diren horiek seinalatuta, jardueraren ikuspegiak dieta aztertzea izan behar du, haurrei aplikatu ahal izateko)

a) Hezkuntzako eta haurrentzako gizarte arretako esku-hartzea programatzea, erakundearen programaren jarraibideetan eta bakoitzaren, taldearen eta testuinguruaren ezaugarrietan oinarrituz. (Kompetentzia nagusia)

b) Jarduera garatzeko baliabideak antolatzea, haurren premia eta ezaugarriei erantzunez.

c) Programatutako jarduerak garatzea, baliabide eta estrategia metodologiko egokiak erabiliz eta konfiantzazko giroa sortuz.

f) Pertsonen, baliabideen edo ingurunearen dagozkien kontingentziari erantzuna eman, segurtasuna eta konfiantza transmitituz eta, dagokionean, ezarritako jarduera-protokoloak aplikatuz.

g) Esku hartzeko prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzea, prozesuari dagokion dokumentazioa landuz eta kudeatuz eta informazioa transmitituz, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

j) Haurrekin eta horien familiarekin, bere taldeko kideekin eta beste profesional batzuekin harreman arinak izatea, gaitasun sozialak eta kultura-aniztasuna kudeatzeko gaitasuna erakutsiz eta sortzen diren gatazken aurrean irtenbideak emanez.

k) Inguru seguruak sortzea, jardueren plangintzan eta garapenean segurtasun-arauak eta -protokoloak errespetatuz.

1394/2007 Errege Dekretuaren moduluarekin bat etortzeagatik gehitutako kompetentziak

d) Familiarekin lan egiteko estrategiak diseinatzea eta aplikatzea, erakundearen helburuen eta prozeduren esparruan, esku-hartze prozesua hobetzeko.

e) Haurren premiei erantzutea, baita beste profesional edo zerbitzu batzuen parte hartzea eskatzen duten familien beharrei ere, dagozkion baliabideak eta prozedurak erabiliz.

h) Jarduera profesionalari dagozkion ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratuta mantentzea, bizitzan zehar ikasteko dauden baliabideak erabiliz.

1147/2011 Errege Dekretuaren 3. artikuluko Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorretik hartutako kompetentziak

c)* Diziplinako, banakako laneko eta talde laneko ohiturak finkatzea, baita autoikaskuntzarako gaitasunak eta gaitasun kritikoa ere.

h)* Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea, baita jarduera profesionalean behar diren atzerriko hizkuntzak ere.

(* LHren Antolamendu Orokorretik datorrela markatzen du)

Ikasketaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

IE1. Haurren oinarrizko premiei arreta emateko hezkuntza-jarduerak planifikatzen ditu, elikadura, higie eta atsedeen jarraibideak eta hazkuntzako eta garapen fisikoko patriiak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garapen fisikoaren faseak eta horretan eragiten duten faktoreak identifikatu dira.

b) Haurrek elikaduraren, higiearen eta atsedeenaren arloetan dituzten ezaugarriak eta premiak deskribatu dira.

c) Haurren ezaugarrietara (adina, alergiak, elikadura-intolerantziak eta abar) egokitutako hainbat dieta eta menu egin dira.

d) Haurren garbiketarekin, higiearekin, arroparekin, atsedeenarekin eta loarekin lotutako jardunbideak deskribatu dira.

e) Elikadurari, higieari eta atsedeenari lotutako arazo edo gatazka nagusiak identifikatu dira.

f) Haurren oinarrizko premiak asetzeko jarduera, baliabide eta estrategia egokiak proposatu dira.

g) Elikadura, higie eta atsedeen premiak asebetetzeko giro egokiak eta seguruak diseinatu dira.

h) Eguneroko errutinen plangintzan eta garapenean parte hartzen hartzen duten elementu materialak eta espazioari eta denborari dagozkionak ezarri dira.

- i) Oinarrizko premiak asebetetzeko moduaren eta haurren ezaugarrien arteko lotura ezarri da.
- j) Oinarrizko premiak asebetetzearekin lotutako jarduerak hezkuntzan duten garrantzia baloratu da.

IE2. Haurren autonomia pertsonala garatzen laguntzeko hezkuntzako esku-hartzeak programatzen ditu, horiek hezkuntza-plangintzako estrategiekin eta haurren garapenaren erritmoekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ohiturak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu dira.
- b) Haurren autonomia-aukeren araberako helburuak formulatu dira.
- c) **Autonomia pertsonaleko ikasketak sekuentziatu dira haurren eboluzio-ezaugarrietan oinarrituta.**
- d) Autonomia pertsonala sustatzen duten giroak diseinatu dira.
- e) Haurrek autonomia pertsonala garatzea oztopatzen duten elementuak atzemateko estrategiak eta tresnak ezarri dira.
- f) Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko egokiak diren jarduerak proposatu dira.
- g) Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, izan daitezkeen gatazkak eta arazoak identifikatu dira.
- h) Autonomia pertsonala garatzeak duen garrantzia baloratu da, haurrek bere buruaren irudi positibo bat sortzeko eta bere garapen integralerako.
- i) **Familiarekin lan egitearen garrantzia baloratu da, autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko eta finkatzeko.**
- j) **Haurrek autonomia hartzeko helduok dugun zeregina azaldu da.**

IE3. Esku-hartzearen espazioak, denborak eta baliabideak antolatzen ditu, haurren erritmoekin eta 0tik 6ra arteko haurrek errutinak izateko duten behararekin lotuz; eta dagokionean, beharrezkoak diren laguntza teknikoekin ere.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Errutinek haurren garapenean duten eginkizuna eta ikastetxeko jardueraren denbora-antolaketa duten eragina azaldu dira.

b) Elikadurarako, higienerako eta atsedenerako eguneroko errutinak ezarri dira.

c) Atsedenerako, higienerako eta elikadurarako gunea eta baldintzak prestatu dira.

d) Denborak antolatu dira, haurren erritmoak eta jarduera- eta atsedeneen arteko oreka errespetatuz.

e) Atzemandako zailtasunen aurrean konponbideak eman dira.

f) Elikadura-, higiene- eta atsedene-ohiturak lantzeko behar diren objektuak eta baliabideak aukeratu dira.

g) Beharrezkoak diren laguntza teknikoak aukeratu dira.

h) Giroak, materialek eta ekipamendu espezifikoek indarrean dauden higiene- eta segurtasun-arauak betetzen dituztela egiaztatzen da.

i) Haurren banakako erritmoak errespetatzearen garrantzia baloratu da.

IE4. Haurren oinarrizko premiei eta autonomia-ohitura onak hartzeari arreta emateko jarduerak egiten ditu, jarraibideak justifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku-hartzea burutu da, haurren banakako ezaugarrietara, aurreikusitako irizpide metodologikoetara eta ditugun baliabideetara egokituz.

b) Eguneroko errutinetan harreman-premiak asebetetzeko estrategiak deskribatu dira.

c) Haur txikiei zuzendutako elikadura-, garbiketa- eta higiene-teknikak aplikatu dira.

d) Haurarekin hezkuntza-harreman bat ezarri da.

e) Haurren autonomia pertsonala garatzen laguntzeko estrategia metodologikoak aplikatu dira.

f) Haurren banakako erritmoak errespetatu dira.

g) Laguntza teknikoak erabili dira ezarritako protokoloei jarraituz.

h) Higiene-, prebentzio- eta segurtasun-arauak errespetatu dira.

i) Kontingentzien aurrean modu egokian erantzun da.

j) Oinarrizko premiak asebetetzean eta haurraren autonomia garatzean hezitzaileak duen eginkizuna baloratu da.

IE5. Zailtasun handikoak diren edo haurren osasunerako eta segurtasunerako arriskua dakartzan egoeretan esku hartu du, bere jardunbidea gaixotasun edo istripu kasuen prebentziorako eta esku-hartzerako ezarritako protokoloekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Otiak 6 urtera bitarteko haurren ezaugarriak eta oinarrizko premiak identifikatu dira osasun eta segurtasun arloetan, eta haurren eboluzio-etaparekin eta tresna egokiekin lotu dira.

b) Haurrei arreta emateko zentroetan osasuna eta ongizatea sustatzeko hartu beharreko baldintzak eta osasun- eta prebentzio-neurriak deskribatu dira.

c) Osasunerako arriskuak prebenitzeari dagokionez, hezitzailearen osasun eta higiene egoeraren garrantzia baloratu da.

d) Haurren gaixotasun nagusiak identifikatzeko garrantzitsuenak diren irizpideak eta/edo sintomak aipatu dira, eta jarraitu beharreko protokoloak deskribatu dira.

e) Haurren istripu ohikoenak identifikatu dira.

f) Haurren istripuak prebenitzeko estrategiak deskribatu dira.

g) Hezitzaileak gaixotasun eta istripu egoera baten aurrean dituen jarreraren garrantzia baloratu da.

h) Giro, material eta ekipamendu espezifikoek kalitate eta segurtasun arauak betetzen dituztela egiaztatu da.

i) Familiarekin eta, dagokionean, beste profesional batzuekin komunikazio harreman eraginkorrak ezarri eta mantendu dira, aurreikusitako prozedurei jarraituz.

j) Teknikariak osasun- eta segurtasun-eragile gisa haur hezkuntzan duen eginkizuna baloratu da.

IE6. Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen du oinarrizko premiak asebetetzearekin eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzearekin lotuz, eta aukeratutako estrategiak eta tresnak justifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garapen fisikoari, ohiturak hartzeari eta arrisku-egoerak atzemateari buruzko informazio-iturriak eta jarraipena egiteko teknikak identifikatu dira.
- b) Haurren eboluzioaren eta esku-hartzeko prozesuaren kontrolerako eta jarraipenerako egokiak diren adierazleak eta tresnak aukeratu dira.
- c) Ebaluazio-tresna dagokion prozedurari jarraituz aplikatu da.
- d) Emandako laguntzan datuak erregistratu dira.
- i) Bildutako informazioa zuzen interpretatu da.
- f) Esku-hartze desegoki baten atzean izan daitezkeen kausak identifikatu dira.
- g) Familien eta beste profesional batzuen laguntza eskatzen duten egoerak identifikatu dira.
